

## KULTURKRITIKA

» LIBURUA

# Gerraren kontaketa gazi-goza



Amaia Serrano Mariezkurrena

Errealitateak maiz fikzioa gainditzen duela esan ohi da. Eta halakoetan fikzio bidez errealitatea kontatu eta sinesgarri bihurtzea ez da lan erraza. Nobela honetan gerra garaiko istorio bitxi bat kontatzen zaigu, sinestezina irudi lezakeena, baina benetako gertaera bat oinarri duena. Valladolideko artzapezpikuaren bahiketa eta ihesa da, hain zuzen, kontagai. Alabaina, gertakizun hura fikzio bihurtzeko hautatu den tonuak egiten du liburua berezi: tragediaren eta komediaren arteko narrazio groteskoa dirudi. Komikotasunetik dramarainoko bidea egiten du, hasierako egoera irrigarriak desegin eta gerraren krudeltasuna agerian utziz.

Idatzi-moldearen umore kutsua hiru baliabideren bitartez lortzen da. Batetik, zenbait pertsonaiaren ibilbide ideologikoa karikatuzatuz. Bestetik, anarkismoaren mugimenduan dabilzan pertsonaia batzuen inkoherentziak nabarmenduz. Azkenik, gertaera batzuk muturrera eramanez. Horrez gain, pertsonaia historikoak narrazio komikoarekin nahasteak harridura, zirrarra, irribarrea nahiz larritasuna sor dezake irakurlearengan, batez ere egoerak absurdoraino iristen direnean.


Bestalde, testuinguru gatazkatsu horretan Karmen pertsonaia da nabarmentzen denetako bat, eta haren ibilerek bihurtzen dute 1936ko Gerrari buruzko eleberrigintzako emakumezko ekintzaile bakanetarikoa. Hura da, hain zuzen, istorioaren norabidea aldatzeko gaitasuna duena: alde batetik,

## Gerezi denbora

INAZIO MUJIKA IRAOLA

Alberdania, 1999

*Inazio Mujika Iraola idazle eta editorea (Donostia, 1963).*



anarkista zoroaren amaiera eragiten duelako, eta bestetik, ezohiko emakume-irudia emanez, liderrari tiroa eman eta gudariak burutzera ausartu ez direna egiten baitu. Haatik, emakumezko pertsonaiaren irudikapenak erakusten du bulkadetatik eta sentimenduetatik egiten duela gerra, ezen arrazoi ideologikoa amodio-mendeku batetik abiatzen dela iradokitzen baita.

Eleberrri honetan ipuingintzan trebatua den idazlearen eskua nabari da, irudien plastikotasunean, pertsonaien alderdi psikologikoen sakontasunik ezean, ekintzen ugaritasunean eta kapitulu amaieretako intrigan. Irakurleari hari-mutur batzuk lotzeko eskatzen zaio, eta, trukean, bera konplize bihurtzeko asmoa dago nobelaren bukaeran, Donostiako alkate nazionalak artzapezpikuari eskaintako adierazpen publikoak istorioa irakurri duenak soilik ulertuko duen esanahia hartzen baitu, alkatearen ezjakintasuna agerian utziz. ■